

Zirkuituak berrerabiliz

Zirkuitu inprimatuen berrerabilpen-prozesua azkartu eta merkatuko duen teknologia berria arrakastaz erabili dute Daimler Benz konpainiako teknikariek. Begiz jotako epeak betetzekotan hurrengo urtarrilean gaudituko du laborategiko urratsa teknologia berriak eta merkaturan aurkezteko moduan izango da.

mentu poluitzaile asko dutelako eta horiek guztiak askatu egiten direlako piezaren osoko tratamendua egiten denean.

Alemanian erabiltzen ari diren saiakuntzako teknika berriaren ekarpena zirkuituaren batezbesteko erabilpen-denbora amaitu eta gero, berau osatzen duten elementuen berrerabilpenean datza. Orain arte, elementu horiek banatzea izan da oztoporik handiena, baina teknologia berriak banaketa tenperatura baxuan egitea ahalbideratu du. Daimler Benz-ko teknikariek darabilten teknologia berriak erdira ekarriko du zirkuituek sortzen duten hondakin-kopurua. Agidanez, berrerabilpen-prozesuaren kosteak ere erdira ekarriko dituzte.

Hego polotik mundura


Hego poloa gure planetako azken zokoa da. Leku urrun eta bakarti horretan, gizakiak natura beraren kontra borrokatu behar izaten du bere iraupena ziurtatzeko. Alabaina, borroka horretan ez da gehiago bakarrik izango, Internet sareak aurki hedatuko baititu bere "olagarro tentakuluak" bertaraino. EEBBetako ikerlari-talde bat dago asmo erraldoi horren atzean. Eguraldi-satelite

baten bidez, informazio-trukaketa erraztuko duen sarea eraman nahi izan dute bertara. Aurrikusitako epeak betetzekotan, hurrengo urtearen hasieran erabilgarria izango da Internet sarea Hego polo osoan, zenbait baliabide informatiko bertako klima-baldintzetara egokitu ostean. Internet sarea Hego poloan erabili ahal izateak askok uste baino abantaila gehiago ekarriko du. Besteak beste, astronomoek nozituko dituzte aurrerapenaren onurak, Hego poloa behaketak egiteko lekuri aproposena izanik, informazio-sare azkar eta eragin-korra bertantxe erabili ahal izateak asko erraztuko eta azkartuko baititu beren saioak. Programako arduradun teknikoek ziotenez, "hotzaren kontrako borrokan nagusitu egin da Internet".

Tecnologia eta segurtasuna

Larrialdi-egoera baten aurrean gutariko bakoitzak nola erantzungo lukeen auresaterik ez dago. Hala uste genuen behintzat, Frantziar burutu berri den esperimentuaren berri izan arte.

Larrialdi-egoera arrunt baten aurrean, inplikaturiko elementu bakoitzak joera eta portaera desberdinak izan ohi ditu. Nolanahi ere,



Larrialdi-egoera arrunt baten aurrean, sortzen diren erreakzio guztiak irizpide fisiko eta psikologikoen arabera aurrea daitezkeela uste du Frantziako ikerlari-talde batek eta horiek guztiak bildu dituzte simulazio-programa batean.

erreakzio guztiak irizpide fisiko eta psikologikoen arabera aurrea daitezkeela uste du Frantziako ikerlari-talde batek eta horiek guztiak bildu dituzte simulazio-programa batean. Orain arte, ingurunearen faktoreak aztertu izan dituzte simulazio-egitasmoetan, baina programa berri horrek gizakion alderdi psikologikoa ere kontutan hartzen du. Sute baten aurrean esate baterako, ihesbiderik logikoena zein izango litzatekeen aztertzeaz gain, izua edo agitazioa bezalako irizpideak ere aztertzen ditu. Oraindino laborategian baino ez da erabili, baina homologazio-fasea gaudituko orduko, Frantziako gobernuak erabiltzeko prest dagoela iragarri du.



Elektrogailuen kontsumo-iraupena gero eta laburragoa denez gero, zabor elektronikoa gero eta arazo larriagoa da.



Dakigunez, zirkuitu inprimatuen eta zirkuitu integratuen erabilera gero eta hedatuago dago. Ordenadore, hozkailu, telebista edo irratiek, etxean hain arruntak diren elektrogailu horiek guztiak zirkuitu inprimatuak erabiltzen dituzte. Objektu horien kontsumo-iraupena gero eta laburragoa denez gero, zabor elektronikoa gero eta arazo larriagoa da. Eta larria diogu zirkuituek ele-